

Alejandro Romo omendu du Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak Alejandro Romo artisaua omendu zuen aurreko larunbatean eta Romo berak kontatu digu zertan aritu den azken urteotan. /4



Bizitzaren une txikiak maitatuz

Herriko heldu, zein haurrek ederki gozatu zuten *Momentari* lanaz

Larunbatean, Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu ziren haur eta helduek *Nats Nus* dantza taldearen *Momentari* lana ikusi zuten.

Honetan pertsonaia bitxia batek, Tarik, egiazko zorionaren bila egin duen bidaian zehar aurkitutako altxor txikiaren murgildu zituen ikusleak.

Bildutako istorio horiek guztiak lau pertsonaien eta sei aldetako kubo baten laguntzaz aurkeztu zituen pertsonaia honek.

Modu erakargarri batean, perkusio erritmikoa, ikusentzunezko eta dantza garaikidea nahastu ditu *Nats Nus* taldeak lan honetan.

Lasarte-Oriako ikusleen harridura nabarmena izan zen *Momentari* lanaren une batzuetan, baita haien barreak eta onespena ere.



Musuak, besarkadak... poza sortzen duten une asko daude bizitzan eta horietako batzuk azaldu ziren kultur etxeko aretoan.

Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren sustatutako Dantza Garaikidearen Zirkuituaren seigarren

edizioaren eta Lasarte-Oria dantzan 2010 egitasmoaren barruan dagoen lana dugu *Momentari*. Ekimen honen

hurrengo saioa, azaroaren 19an eskainiko den, Verdini dantza taldearen *Dantzaria* naiz ikuskizuna da. •

Giro ederreko bertso saioa

Larunbata gauean, Unai Muñoa eta Xabier Silveira bertsolariak giro ederra jarri zuten Xirimiri elkartearen egin zen bertso-saio berezian. Elkartearen bildu ziren lagunak bapote afaldu eta jarraian, bi bertsolari hauen lanaz gozatu zuten, baita herriko gazteen trebeziaz ere, hala nola, musika jo, bertsoetan jardun edo marraztu. Gai librean edo ikusleek eskatutakoan, argi geratu zen Muñoak eta Silveirak elkarri zirikatze gogoia zutelana. Horregatik, ikusleen barre eta algarak ugariak izan ziren saioan zehar. •



Unai Muñoa eta Xabier Silveira bertsolariak Xirimiri elkartearen bildu ziren lagunengustuko lana egin zuten.

ELKARRIZKETA/2

Mikel Landa pilotaria, Paueko XVI. Munduko Txapelketan

AISIA/4

Jalguneko kideek dardo txapelketa berezia izan zuten larunbatean

GIZARTEA/6

Konpostatzeko kutxak jarriko dituzte laster Zabaleta auzoan

Leire
Arrandegia



Nagusia 35
Lasarte-Oria
Tel.:943 371946



KALITATEA
PREZIO JUSTUAN

JATEN DUGUNA
GARA!



ORDUTEGIA

Astelehenetan 09:00 etatik 14:00etara
Asteartetik larunbatera 08:00etatik 14:00etara
Astearte eta ostiralean arratsaldez ere 17:00etatik 19:30era

Mikel Landa pilotaria

“Ezin dudan arte segituko dut pilotan”

35 urterekin brontzezko domina jantzi du Paun trinketea Munduko XVI. Pilota Txapelketan

Mikel Landa, herriko pilotariak brontzezko domina jantzi zuen Munduko XVI. txapelketan trinketea Asier Monreal arabarrarekin batera. 2005ean hasi zen trinketea jokatzen eta munduko bi txapelketetan parte hartu du, 2006an Mexikon eta urriaren 1etik 10era, Pau, Oloron Saint Marie eta Lescair Pirinioetako herrietan.

Jon ALTUNA

Hirugarren izan zen Mikel Landa eta Asier Monreal-ek osatutako bikotea duela bi aste jokatu den Munduko Txapelketan, Venezuelaren aurka erraz 40-3 irabazi eta gero. Brontzezko domina ekarri du beraz Donostian bizi den lasarteoriatarrek etxera.

Azkenean hirugarren trinketea, zapore gazia gozoa baino gehiago?

Betiko kontua izaten da, trinketea zaila da finalean sartzea. Bi bikote oso fuerte izaten dira, Iparraldekoak eta Mexikokoak, eta besteak bastante baxuagoak. Beraz, hirugarren egitea erraza da eta finalean sartzea zaila.

Pena pixka batekin geratu zarete beraz?

Bai finalerdia galdu genuen eta, penarekin. Hor zegoen finala baino,...

Gakoa hori izan zen Mexikoren aurkako finalerdia: 40-35 galdu zenuten?

Ona izan zen partidua eta partidu ona egin genuen, hori baino hobek gutxi egingo ditugu, susto bat eman genien. Ordu eta berrogei minutu iraun zuen partidua, dena eman genuen, lehertuta bukatu arte.

Onak ziren mexikarrak, beraz, zer egin zuten finalean?

Txapelketan izan ziren.

Iparraldekoen kontrako finalerdia irabaziko al zenuten?

Agian bai agian ez. Ezberdin jokatzen dute eta ez dago asmatzerik.

Zenbat egun egon zarete Pau inguruan?

Txapelketa 10 egun dira, baina aurretik joaten gara, bi aste egon ginen bertan. Orain arteko txapelketetan banaka aritu naiz, eta aurten binaka.

Zer moduzko giroa izan duzue pilotarien artean?

Gure artean ona. Gero goikoekin izaten ditugu sesioak.

Azken finean afizionatuak gara, eta edukitzen gaituzte elitekoak bagina bezala. Profesionalak bagina bezala tratatzen gaituzte.

Inguru ederra, Pirinioetan,...

Bai, oso polita da, baina gu hotelean eta trinketeko guneean egoten ginen. Hau aparte xamar zegoen eta ez genuen beste ezer egiten.

Zer iritzi euskaldunak España eta Frantziaren ordezkari izateari buruz?

Ez dakit, honetan hasi nintzean galdetu zidaten jokatu nahi nuen, eta besterik gabe joan egin nintzen. Nahiko sesio izaten dugu, bi federazio ezberdin direlako, Euskadikoa eta Espāñakoa, ez dira moldatzen beraien artean. Bestalde, egoera xelebrea bada, haiek (frantsesak) ere euskaldunak ziren, euskaraz hitz egiten zuten.

Europako txapelketan talde asko izaten al da dira?

Pilota ez dago oso zabaldua eta orduan Europako Txapelketan izaten dira Espāñako eta Frantziako txapelketetako bi lehenengoak, eta gero Belgika eta Italia ere etortzen dira txapelketara, baina hauek ez daukate mailarik.

Munduko txapelketa lau urtean behin jokatzen da, olinpiadak bezala; gutxitxo da agian?

Guretzat bai, urtean zehar partidu gehiegi ere ez dugu izaten eta. Tartean Munduko Kopa deitzen diotena izaten da, eta eskerrak. Bi urtero jokatzen dugu. Dena den, ni ez naiz horri begira egoten. Gipuzkoakoa jokatzen ere gustura aritzen gara.

Lau urte barru jokatuko al duzue Mundukoan?

Nahiko lan, urte batzuk ere badituzte eta, 35.

Eta aurretik, egon al zara?

Beste behin, Mexikon, 2006an. Juxtu orduantxe hasi nintzen trinketea eta kristoren suertea izan nuen.



Mikel Landa pilotaria, Villa Mirentxuko trinketearen ondoan. Astelehenero elkartzten dira lagunak bertan jokatzeko.

Zer moduz ibili zineten?

Ondo, desberdina izan zen; han, libre ibiltzen ginen zer edo zer ikusteko. Zilarra lortu genuen banaka, baina Unai Alvarez hernaniarrak jokatu zuen. Bere ordekoa izan nintzen ni. Mexiko hiriburuan jokatu zen, ikaragarria da. Kontuz ibiltzeko modukoa. Esan ziguten Mexiko DF eta inguruan 30 milioi bizi direla.

Asko bidaiatu al duzu pilotari esker?

Mexikon egon nintzen eta duela bi urte Kopan Kuban. Ez da gutxi. Behin jokatu beharra izanez gero, hobe urrutian bada. Bidaiaren bat egin, ondoren egun batzuetan han gelditu,...

Pilota ez da kirol olinpikoa, izan beharko al litzake?

Nik nahi bai, baina egia esan, ez dago zabaldua, eta ez dakit merezi duen. Leku batzuetan, Argentinan edo Venezuelan, adibidez, saiatzen dira, baina ezin dute mailarik hartu, elkarren artean bakarrik aritzen direlako. Harrigarria da mexikarrek, bakarrik ibilita, zein maila daukaten, oso onak dira.

Zergatik ari zara trinketea?

Pilota ia utzita nuen, baina berriz hasi nintzen herri artekoan jokatzeko deitu zidatelako. Bat behar zuten. Kostata hasi nintzen eta trinketea probatzeko esan zidaten gero. Afizioz aritzen garenez, probatu eta ondo joan zitzaidan.

Pilotak zera dauka, asko kostatzen dela hastera, eskuegatik,... Eta orain ez daukat uzteko inolako asmorik, ezin dudan arte segitu beharra dago. Hemen inguruan jokatzen, baina segi.

Eta frontoi normalean ere aritzen al zara?

Zer edo zer bai. Trinketea sartuta zaudenean trinketari ematen diozu garrantzia gehiago, baina txapelketaren batean, tokatzen dena.

Herri artekoan Lasarte-Oriarekin aterako al zara?

Ezin dut, Donostian erroldatua nago eta ez daukat jokatzerik. Han badira beste batzuk eta ez dut gehiegi muturra sartzen.

Noiztik zara pilotari trinketea?

Trinketea, Mexikora joan aurretik, duela bost bat urte

hasi nintzen. Hasi eta segituan aukeratu ninduten. Gipuzkoako finala jokatzeko sailkatu nintzen juxtu Unai Alvarezen aurka. Hautatzailea Unai ikustera joan zen, kasualitatez irabazi egin nion eta oso kolpetik etorri zen dena.

2006an jada txapeldun izan zinen beraz Alvarez-en aurka...

Bai.

Zein izan da trinketea zure lorpenik handiena?

Egian esan gehiegi ez dugu lortu, Gipuzkoako txapelketa behin baino gehiagotan irabazi dut. Gero GRAVN eta Euskal Herrikora joaten gara eta kosta egiten zaigu, ez dugu gure maila ematen.

Zein izan da trinketea zure etsairik gogorrena?

Unai Alvarez hernaniarra bera. Haren aurka ibiltzen naiz gehiena. Bai hura da, jarritzen denean, hemen inguruan onena. Orain utzia dauka.

Beste zein zaletasun dituzu?

Mendia gustatzen zait dezente. Orain nahi baino gutxiago joaten gara. Batez ere, Pirinioetara, eta Alpetara ere bidaiatu pare bat egin ditut. Eskalatzeko ere aritzen naiz. Lehen dezente eta orain aldian behin.

Lanean igeltsero aritzen naiz, baina aspaldian lanik gabe nabil. •

Unai Alvarez-en aurka Gipuzkoako finala jokatu nuenean, bera ikustera joan zen hautatzailea, eta irabazi egin nion.



Boogaloo, Jazz-Funky, Blues edo Latin Jazz estiloak nahasten ditu *The Boogalords* taldeak.

Kultur eskaintza zabala asteburuan

■ *The Boogalords* taldea eta *Akaziaren jokoa* antzezlanaren egongo dira kultur etxean ■ Jalgi kafe-antzokian, *Gora Gora Kids* taldea

Musika edo antzerkia gogoko? Lasarte-Oriako eskaintza kultural oparora du eta asteburu honetan hainbat ekimen antolatuta dira.

Ostiralean, azaroaren 12an, arratsaldeko 20:00etan *The Boogalords* taldearen emanaldia entzuteko aukera izango da.

Gazteria sailak eta Xpression kultur elkartearen eskutik, boogaloo estiloaren alde egiten duen taldea ikusteko aukera egongo da kultur etxe-ko kafetegian.

Era berean, Jazz-Funky, Blues edo Latin-Jazz estiloak ere ekarriko ditu *The Boogalords* taldeak.

Talde instrumental honek, estilo hauek guztien loturak erakutsi eta inprobisaziorako duten gaitasuna ere erakutsiko du.

Santi Artola kitarran, Euxebio Soria baxu elektrikoan, Ixa Oizartabal baterian eta herrikoa den Beatriz Hurtadok piano eta teklatuan Joe Zawinul, *The Beatles* edo George Harrison artisten lanak eskainiko dituzte beste kultur etxe-ko kafetegiko oholtzan.

Gora Gora Kids

Garage rock, punk, rhythm and blues edo 60. hamarkadako doinuak entzungo dira Jalgi Kafe antzokian ostiraleko 23:00etatik aurrera.

Gora Gora Kids taldeak *Uaauh, miau & yeah!* bere lehengo laneko zortzi abestiak aurkeztuko ditu.

Taldearen indarra eta abesti bizi, bero eta dibertiga-

rrien bidez, ostirala gauetan kafe antzokiko entzuleak dantzan jartzeko asmoa du talde honek.

Afrikako egoera

Eta kultur eskaintzarekin jarraituz, larunbatean, hilaren 13an, *Akaziaren jokoa* ikuskizuna iritsiko da herriko kultur etxera.

Kultura eta hezkuntza saila eta Medicus Mundi elkartearen eskutik, antzerkia eta dantza garaikidea biltzen dituen lan berezia ikusiko da.

Afrika eta Europaren arteko harremana eta loturak aurkezten dira lan honetan.

Era berean, Afrikan emala-

kumeek bizi duten egoera azaldu eta herritarren sensibilizazioa lantzen da.

Gauzak honela, antzezlan honetan, Afrikara lagun min baten bila joan eta arrazoirik eman gabe bertan geratzea erabakitzen duen pertsona baten istoria kontatzen da.

Hiru eszenetan zehar, bidaiaren azken uneak aurkeztuko dira, Afrikan bertan kokatuak.

Ikuskizunak bi saio izango ditu bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Euskarazko saioa arratsaldeko 18:30an hasiko da; gaztelerazkoa, berriz, 20:30an izango da. Sarrera doakoa izango da. •



Akaziaren jokoa, antzerkia eta dantza garaikidea biltzen duen ikuskizun polita da.

IPUIN KONTALARIAK

Pello Añorgaren ipuinak asteazkenean

Ipuinak entzuteko aukera paregabea dute, asteazkenean 18:00etatik aurrera, 4 eta 5 urte bitarteko haurrek Manuel Lekuona kultur etxe-ko haurren liburutegian.

Ordu betez, Pello Añorga ipuin kontalariak fantasiako munduetan eta pertsonaien istorioetan zehar eramango ditu haurrak.

Baina ez dira hauek bakarrik, mundu miragarri honetan murgildu daitezkeen bakarrik. Sei urtetik zortzi urte bitartekoek ere azaroaren 17an aukera izango dute, Koruko Zurutzaren eskutik.

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi duenez, ipuin kontaketa guztiak 18:00etan hasiko dira baldintza gutxi batzuk bete beharoko dira ipuin kontalariaren saioetan, hala nola, saioetara puntual iristea, programan azaltzen diren urteak errespetatzea, behin ipuina hasi eta gero gelatik ez ateratzea eta haurrak bakarrik egotea. •



Aurreko saioan, hainbat haur bildu ziren Pello Añorgaren ipuinak ezagutzera.

UDALA

Memoriaren eguna da asteazkenean

Lasarte-Oriako Udaltzarrak, irailaren 13an, PSOE, PP, EAJ, LOHP, EB eta H1! alderdien aldeko bozkarekin eta Ezker Abertzaleko zinegotzien aurkako iritziarekin asteazkenean, azaroaren 10ean, Memoriaren eguna ospatzea onetsi zuen.

Era honetara, egun horretan, 11:15ean alderdiek adostutako mozioa irakurriko da; 12:00etan, berriz, *Betibizi* lorea duen plakaren aurrean lore sorta utziko da eta ostean, 15 minutuko isilunea egongo da arkupeetan biktimak gogora ekartzeko.

Lasarte-Oriako Udalak herritarrei deialdia egin nahi die, ekitaldi hauetan parte hartzea. •

GOIEGI-IBARREKO BOE

Esleitu dira etxebizitzak

Lasarte-Oriako Udalak asteazkenean esleitu zituen Goiegi-Ibarreko 76 BOE konkretuak.

Bigarren zozketa honetan, Jesus Zaballos alkatea buru izan zuena, joan den urriaren 1eko zozketan aukeratuak izan zen pertsona bakoitzak ezagutu zuen zein den berari dagokion blokea eta etxebizitza. Izan ere, ingurune berria den honetan lau bloketan banatuko dira 76 etxebizitzak.

Era berean, enpresa sustatzailea, Nasipa, ekitaldian izan zen. Honek etorkizuneko jabeek bere etxebizitzari zegokion plano eta bestelako dokumentazioa banatu zizkien eta, hone-taz gain, jabeek etxebizitzetara buruz zizutuzten kontsultak erantzun zituen. •

KIROLA

Igeriketa ikastaroa helduentzako

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak erdi eta hasiera mailako helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko du udal kiroldegian, azaroaren 15etik 2011ko urtarrilaren 10era.

Asteko hiru egunetan, astelehen, asteazken eta ostiraletan egingo dira saioak eta gaueko 20:30etatik aurrera izango da.

Ikastaroak 105,70 euro balio ditu eta kiroldegiko bazkide direnentzat 58,60 euro. Izena emateko azken astea da hau, izan ere, epea azaroaren 12an isten da.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu behar duzue edo 943 376182 telefonoan ere informazioa eskatu dezakezue. •



Giro ezin hobean Jalguneko kide eta lagunek bosgarren dardo txapelketa kooperatiboa egin zuten. Argazkian ikusten den bezala, urritasuna ez duten partehartzaileek oztopo bat baino gehiago gainditu zuten jaurtitzeko.

Dardoak eta integrazioa

Arratsalde pasa ederra egin zuten Jalguneko kide eta lagunek

Nerea EIZAGIRRE

Bost urte dira Jalguneko elkarte mutil eta neskek txapelketa berezi batean parte hartzen dutena. Haien eta kaleko gazteen indarrak batuz dardo lehiaketa kooperatiboa antolatzen da, Dardos Easoren laguntzaz, Also tabernan.

Larunbatean izan zen eguna eta giro ederrean 15 bikote aritu ziren dardoak jaurtitzen.

Proba desberdinak egin zituzten eta oztopo txiki batzuk jarri zitzaizkien Jalgunekoak ez zirenei.

Honela, urritasuna duten gazteengana gehiago hurbiltzeko asmoarekin dardoa jaurtitzeko hutsak duen zailtasunari beste batzuk gehitu zitzaizkien, adibidez, begiak estalita, patinete baten gainetik, belauniko, ura edanez edo eskuak lotuta jaurti zituzten dardoak.

Arratsalde pasa ederra egin zuten Jalguneko lagunek eta txapelketa amaitzean parte hartzaile guztiek sari berezia izan zuten, opariz betetako motxila.

Helburua betetzen

Elkarteko arduradunak pozik agertu dira ekintzarekin eta

parte hartzaileekin, "jendea prest agertu da lehiaketan parte hartzeko eta hori eskertzekoa da."

Honetaz gain, elkartearen helbururako, gazteen harreman sarea zabaltzeko honelako ekintzak oso positiboak direla azpimarratu dute.

Jaialdia

Izan ere Jalguneko elkarteak, horrelako hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar eta hurrengoa, Jalguneko jaialdia izango dela gogoratu digute, "azaroaren 27an, larunbata, arratsaldeko 18:30ean Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan izango da hori."

Egun hauetan, jaialdiaren antolaketan buru belarri daude lanean elkarte kide eta lagunek.

Arduradunek azaldu digutenez, "iazko partaide kopurua gaitz nahi dugu."

Horregatik elkarteak deialdi zuzena egiten die jaialdian parte hartu nahi duen orori.

Interesatuak dauden herritarrek Jalguneko elkarteak Behetako Kale bidea 1, 2. solairuan duen egoitzara hurbildu daitezke ostegun eta ostiraletan, 17:30etatik 19:30etara edo larunbatean, 15:30etatik 20:30etara. •



Jalguneko elkarte kideak esker handia diete txapelketa honetan urtero parte hartu duten lagunei eta Also tabernari.



Jalguneko elkarte gazte bat baino gehiagok indarra eta zehaztasuna duela erakutsi zuten dardo txapelketa berezi honetan.

Alejandro Romo Artisaua

“Gustura egindako lana ez da lana”

- Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak omendu egin zuen pasa den larunbateko jaialdian
- Pertsona umila eta omenaldiak gustuko ez dituen bada ere, esker onez hartu zuen aitortpena

Egurrean tailatutako oroigarri polit bat jaso zuen larunbatean Alejandro Romok, Lasarte-Oriako kultur arloan musu truk egin duen lanarengatik. Kukuka Antzerki eta Dantza Elkarrekin hainbat urtetan Romok emandako laguntza eskertu zuen omenaldi honekin. Honelako ekitaldien zale ez bada ere, Alejandro Romok aitortu digu oroigarria "oso polita" dela, "pozik eta hunkituta" jaso zuela eta Kukukakoei eskerrak emateko eskatu digu.

Jon ALTUNA

83 urte ditu Alejandro Romok, Orián jaio eta Zabaletako aldapan bizi, bizitza osoa eman du herrian. Orain jada, “lagunartean egon” eta lasai bizi nahi du “ahal baldin badut”. Baina orain artean beti egon da behar zuenari laguntzeko prest eta esku ona izan du lanerako.

Nola sentitu zinen aurreko egunean Kukukakoei egin zizuten omenaldian?

Niri horrelako gauzak ez zaizkit gustatzen. Ni, gauzak egiteko beti prest nago, baina, bestea,... jende aurrean ez zait gustatzen. Kostatu egiten zait oholta gainera igotzea.

Baina polita da zure borondate ona saritzea, ezta?

Bai, bai. Eskertzekoa da hori. Baina zoriondu nahi ditut beraien ere, egiten duten lanarengatik. Antzerkikoei eurek dute meritua. Nola ez nien ba lagunduko!

Ez da jasotzen duzun lehenengo omenaldia gainera, duela hiru urte Santa Ana parodian ere egin zizuten...

Bai, eta lehenago ere bai. Gehiegi egin dizkidate. Orain dela 20 bat urte Proyecto Hombregak, Michelingo kooperatiban egin zidaten. Herriko dantzariak ere omenatu ninduten.

Antzerki taldekoentzat zein lan egin dituzu?

“Garrasi Ixilak” laneko trintxerak egin nituen, dekoratu batzuk, maskarak,... beti zer edo zer, etortzen direnean, hor ibiltzen gara saltsan.

Parodiako irudiak, Zabaletako Teresa sorgina,... oro har kultur mailan herrian lan asko egin duzu; herriko buruhandiak zuzen egin al dituzu?

Diseinuak egin genituen, eta gero Irunen egin zituzten, gure marrazkietan oinarrituta.

Enkarguak dituzunean nondik abiatzen zara? Marraztu egiten al duzu?

Ez, dena daukat buruan.

Zein material erabiltzen dituzu?

Egurra, burdina, plastikoa edozein material erabiltzen dut. Moldatzeko erraza baldin bada edozein material. Behin erremintak eta ideia edukiz gero...

Orain modan jarri da birziklapena, baina zuk aspaldidanik egin duzu...

Bai. Motorrak beti erabili izan ditut. Jaiotza erraldoian, 22-23 motor zahar daukat jarrita. Bat bakarrik erosi nuen, beste denak birziklatuak dira, eta erositakoa ez nuen jarri gainera, ez zeukalako indarririk. Ia dena birziklatua da, ia ez dut ezer erosten.

Ze materialekin gustatzen zaizu lan egitea?

Aukera badut burdinarekin. Ni mekaniko izandakoa naiz eta burdinarekin hartuemana izan dut beti. Forjan, sutan berotu eta forma ematea, lan oso gustukoa dut.

Eta eskulturak egiterik pentsatu al duzu sekula?

Badauzkat eskultura txikiak eginda, musikari autoktonoen lau talde: txistulariak, dultzaineroak, trikitilariak eta txalapartariak. Ikastaro bat egin nuen buztina ezagutzeko Catalina de Erauson, Donostian, duela 50 urte baino gehiago. Oso gazterik eman zidaten lanerako ezintasuna, eta zerbait egin behar. Emazteak bulzatu ninduen.

Uste nuen autodidakta zirela, beste ikastarorik egin al duzu?

Pintura ere gustatzen zait, garai batean asko margotu nuen. Ezintasuna jaso nuenean, ikastolan hasi nintzen haurrekin margotzen eta esku lanak erakusten, eta han Karlos Zabala Arrastalu usurbildarra ezagutu nuen. Oso lagunak egin ginen, eta gero Usurbilera joaten nintzen. Beti saltsan...



“Bihotza, burua, eskuak,... sentitu, pentsatu, ekin,... beti elkarrekin. Milesker Alejandro” jartzen du jaso zuen oroigarria.

Jarraitzen al duzu margotzen?

Ez, baina agurras-a usaintzen dudanean, gogoia ematen dit.

Herriko artista zarela diote, gustatzen al zaizu adjektiboa?

Artista, artista? Artisaua hobe.

Eskulanetarako dohainak dituzula erakutsi duzu urtetan...

Bai, esku artean beti daukat zer edo zer. Honentzako edo bestearentzako,...

Danak Kideko jaiotza zer da zuretzat, urteroko erronkatxoa? Jarraitzeko asmorik ba al duzu?

Jada ez. Bukatu dut. Aurten lagunduko diet, norbait joaten bada, baina...

Lehen Joxean Gomez eta biok aritzen zineten, ezta?

Bai, baina berak utzi egin zuen.

Pozgarria izango zen halako jaiotza egitea, pena sentitzen al duzu bukatzean?

Bai, hori besterik ez dago eta. Baina esaten dut, denak du hasiera eta bukaera. Hori da naturala.

Egindakoa hor dago...

Lokala da arazo. Azken bi urtetan bertan utzi dugu, baina...

Badakit lan horretan asko gozatu duzula urteotan?

Bai, asko gainera. Ez han bakarrik, etxean gehiago. Hor ikusten diren tramankulu guztiak etxeko garajearen prestatzen nituen. Orduak? Batere konturatu gabe, askotan goizeko ordu biak eta hiruak iristen ziren.

Gustura egindako lana ez da lana. Baina, lana egiteko ez dugu balio jada.

Lanean mekaniko aritzen zinen? Non?

Mantentze-lanetan, Liberto Aizpuruan. Laminazioa eta labea zituen. Moldatu egin behar, orduan, gutxierekin asko egin behar; garai haietan ez zegoen ez erremintarik, ez ezer.

Noiz konturatu zinen esku ona zeneukala?

Oso gaztetatik. Lehengusuekin hasi nintzen tailer batean, pintxe, laguntzaile, eta azkenetako makina denak pasa nituen. Gero Luzuriagan sartu eta han lau urte egin nituen. Ameriketara ere joan nintzen, urte eta erdi, 30 urterekin eta gero, hasi nintzen Liberto Aizpuruan.

Lanera joan zinen Amerikara?

Ez, izeba bat nuen han. Kalifornian. Ondo pasa nuen, gehiena arrantxo batean egoten nintzen, han mendian nahiago nuen hirian baino. Zaldi eta ardiekin.

Eta nondik datorkizu euskal zaletasuna?

Etetik. Amagandik batez ere. Amonarekin ere asko ibiltzen ginen eta honek erdaraz ez zekien. Ama ere oso euskal zalea zen. Aitak egiten zuen euskaraz, baina orduan Orián gehiena erdaraz egiten zen, kanpotarrak ere asko ziren eta.

Eta zure eskuzabaltasuna?

Ez zait kostatzen hori egitea, naizena naiz eta besteei laguntzea ez zait kostatzen, batzuk esaten didaten arren ergela naizela, lanak egin eta ez kobratzeagatik. Ondo ordaindua sentitzen naiz.

Nikaraguan ere baduzu lagun bat, Andres Moreno. Urtero bidaltzen diozue eguberritan bildutako dirua...

Semea stripuz hil zenean, diru apur bat hartu genuen eta emazteak esan zidan diru hori behar zuenari emateko. Eta hara bidali genuen. Hemen zegoen Andres hau han berarekin izan zen lasartear batekin, honekin hitz egin eta Andresi esateko komentatu zigun. Elkarrekin ibili ziren biak Nikaraguan. •

Jaiotzan gehiena birziklatua da, ia ez dut ezer erosten. Jarri ditudan motor zahar denak dira birziklatuak

Etxean konpostatzen hasiko da Zabaleta

■ Auzoko 20 lagunek parte hartu zuten auto-konpostatzen ikasteko tailerrea ■ Norberak konpostatzeko aholkuak eman zizkieten bi adituk ■ Koplastagailuak jarriko dituzte auzoan

Lorategiko edo baratzeiko landare-hondarrak eta etxeko hondakin organikoak nahastuz, konposta nola egin daitekeen ezagutu zuten Zabaleta auzoko hogeitaz lagunek aurreko astearte iluntzean. Konposta hori gero ongarri moduan erabiltzen da berriro baratzean edota lorontzietan. Auzo elkarteak konpostatzeko kutxak banatuko ditu; batzuk auzoko kaskoan bertan jarriko dituzte elkarrekin, lurrik ez daukaten auzotarrak amankomunean konposta egin dezaten.

Jon ALTUNA

Etxean konpostatzen hasteko asmoa duten Zabaletako auzotarrak hainbat aholku jaso zituzten aurreko asteartean, urriak 26an, auzoan bertan, gai honetan adituak diren Irati Portu eta Mario Oliver-en ahotik. Hauek autokonpostatzearen berri eman zuten eta bildutako zalantzak argitu ere bai. Hasteko hondakinei buruzko informazio orokorra eman zuten, zenbat sortzen den, horretatik zenbat den organiko eta hau konpostatzearen onurak zeintzuk diren.

Ondoren prozesu honen nondik norakoak azaldu zituzten, norberak konpostatzea zer den eta nola egiten den alegia, lau arautatik abiatuz: leku egokian eta lurarekin kontaktuan kokatzea, materia heze eta lehorra bolumen berdintsuan botatzea, ondo nahastea eta hezetasuna kontrolatzea.

Azkenik, zein arazo izaten diren, hauek nola konpondu daitezkeen eta etxean egindako konposta hori zertan erabili daitekeen azaldu zuten. Ordu bete inguru iraun zuen ikastaroa.

Konpostajea auzolanean

Konpostagailua jartzeko derri gorrezkoa da lur sail bat izatea, eta arazo horri aurre egiteko Zabaleta auzoan lurrik ez dutenentzat konpostagune bat jartzeko asmoa jartzen dute.

Uda aurretik hasi ziren Zabaletako auzokide batzuk biltzen, auzoan auto-konpostatzea martxan jartzeko. Batek, auzoan bizi eta etxe inguruan lurrik ez daukaten taldean, denek elkarrekin, konpostatzeko aukera aztertzen ari dira.

Zabaletako ur depositu zaharraren ondoan lur puska bat begiz jota dute eta konpostatzeko kutxa batzuk jarriko dituzte, gai organikoak bertan bota eta konpostatzeko. Auzo elkarteak ordezkariek Udalarekin harremanetan jarri dira lur sail hori erabiltzeko baimena eskatzeko. Eperik ez dute jarri, baina tokia auzolanean prestatu eta itxiko dutela aurreratu dute, konpostagailuak jarri eta konposta egiten hasteko.

Konpostagailuak

Zabaletako auzo elkarteak, bestealde, konpostatzeko kutxak dauzka auzotarren artean banatzeko. Hauetako batzuk erabiliko dira auzoko konpostategi horretan, lurrik ez daukaten txokotan, eta besteak etxe ondoan lorategi, baratze edo lur saila dutenen auzotarren artean banatuko dira.

Ekainetik ari dira auzoan hondakin organikoak berziklatzeko prozesua jorratzen. San Markoseko Mankomunitateko ordezkariek Imanol Azpiroz-ek hitzaldi bat eman zuen hiri hondakinen kudeaketa eta konpostatzeko aukeren inguru-



Hondakin organikoak ongarri bihurtzeko prozesuaren nondik norakoak azaldu zituzten Irati Portu eta Mario Oliverrek.



Zabaletako 20 bizilagun izan ziren konpostatze ikastaroan.

ruan, uztailean bildu ziren lehen aldiz auzoan konpostatzen hasi nahi dutenak eta irailaren bukaeran auzo elkarrekin gai hau jorratzeko.

Araudia

Zabaletako kaskoko zenbait auzotarrak adierazi dute hondakin organikoekin konposta egiteko asmoa eta taldean egiteko arau batzuek prestatzen ari dira. Helburua batzuk hasi eta gero, lortutako emaitzen arabera, zabaltzekoa da. Beste auzotar batzuek ere adierazi dute eta aurrerago horretan hasteko interesa.

Egun zabor poltsako %40-45 inguru zati organiko da eta urtaroen arabera hiru eta sei hilabete arteko epea behar da hondakin organiko horiek ongarri bihurtzeko. Etxean konpostatzeko ahale-gintxoak hondakinak murrizteko helburuaren aurrerapausu handi bat da, ez da hondakin horiek bildu beharrik eta ziklo natural bat ixten da: lurretik jasotakoa lurriari bueltatzen diogu. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.


Egunero

Erakusketa

AFRIKARI buruzko Prosalus GK Eren erakusketa. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa

METAMORFOSIAZ, Jasone Irigoien margo erakusketa. Jalgin, azaroaren 9tik aurrera.



Fasismoaren sorreraren erreflexioa osteguneko filmean

LA CINTA BLANCA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. 0913an, Alemania iparraldeko herri protestante bateko bizitza lasaia eten dute azaldu ezin daitezken zenbait gertaerek Lehen Mundu Gerra hasi aurretik. Herriko medikua- ren erorketa larria eragingo duen kable, erreko den mandioa, torturatuta agertzen dena... Nor dago guzti honen atzean?

OSTEGUNEAN, HILAREN 11N
21:30EAN KULTURETXEAN
SARRERA, 4,20 EURO

Asteartea, 9

Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Pello Añor- garen eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera. EUSKARAZ

Asteazkena, 10

Diaporama

BULGARIARI buruzko diaporama eskainiko du Naïke Zumetak. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean. EUSKARAZ

Ostirala, 12

Kontzertua

THE BOOGALORDS taldearen emanaldia, funk, blues... Xpresion! elkarte eta Lasarte-Oriako udaleko Gazteria Saialk sinatutako hitzarmenean barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Kontzertua

GORA GORA KIDS taldearen emanaldia, (Garage, Rock). Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.

Larunbata, 13

Antzerkia

AKAZIAREN JOKOA, antzerkia eta dantza ikuskizuna Abstracto- esfera antzerki taldearen eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean, EUSKARAZ eta 20:30ean, GAZTELANIAZ.

Igandea, 14

Zinea

COMO ENTRENAR A TÚ DRAGÓN haurrentzako filma. Sarrea 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan. GAZTELANIAZ

Asteartea, 16

Hitzaldia

GARAPEN PSOAFEKTIBOA. HAURREN EMOZIOA ETA PENTSAMEN- DUARI buruzko hitzaldia

eskainiko du Helena San Pedrok Udalaren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ

Asteazkena, 17

Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Koruko Zuru- tuza eskutik 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera. EUSKARAZ

Diaporama

COSTA RICA ETA NICARAGUARI buruzko diaporama eskainiko dute Mikel Zinkunegik eta Jose Luis Garciak. Jalgi kafe- antzokian, 21:30ean. EUSKARAZ



Oharrak

Oztabide elkarte loteria

Oztabide auzo-elkartek Arranbide-Ozteraneko auzo- tarrei jakin arazten die eguber- ritako loteria salgai dagoela. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteria par- taidetzak dira hartu daitezke- enak. Loteriako partaidetzak Txema taberna (Andapa kalea, "Zumaburu") eta Coviran supermerkatuan (Ozteran enparantzan) erosi ahal izango dituzte.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza- gastuei aurre egiteko baliabi- de hau bakarrik daukala elkarteak.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diru- zorroa, urrezko katea, zila- rrezko zintzilarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketa- rekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera eta kami- seta beltz bat.

Gauza hauen jabeak dire- la egiaztatzen duten herrita- rrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuska- tzeo interesaturik dauden persona gutziet eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Ostirala, 19

Kontzertua

ORIA HIRUKOTEAREN emanaldia Danok Kidek antolatzen duen VI. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren kalen- tua, 19:30ean.

Dantza

DANTZARIA NAIZ emanaldia eskainiko du Verdini taldeak Lasarte-Oria Dantzan ekime- naren barruan. Sarrera, 6 euro. Manuel Lekuona kultu- retxean, 18:00etan.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintzarri@txintzarri.info

Eskutitzak

"San Marko Mankomunitatea Diputazioaren panpin bihurtuko da"

PSOEek eta EAJk gidatutako lehen batzarra burutu zuen herenegun San Marko Mankomunitateak. Lehen bilera horretatik, San Markok, herritarren eta udalerrien interesak defenditu baino gehiago, Gipuzkoako partzuergoaren interesak, hau da, errauste planta eraikitzeko sortutako erakundearen interesak, defenditzeko dagoela ondoriozta daiteke.

Juan Carlos Merinoren ezgaitasuna nabarmena da. Aurreko gobernu taldeko idazkaria eta kontu hartzailea kargutik kendu zituela hilabete pasatu denean, ez da gai

izan San Marko Mankomunitatearen eremuko hamar udal-errietatik idazkari eta kontu hartzailearik topatzeko, eta ezintasun eta gabezia hori estali asmoz, San Markoko estatutuak bihurtu ditu, Diputazioko arduradun bat batzarraz bokatu gabe izendatuz.

Horrek gauza bakarra adierazten du: PSOE eta EAJ ez dira fidatzen mankomunitatea osatzen duten hamar udal-errietako funtzionarioekin. Beraiek sortutako hutsunea betetzeko, ez dute mankomunitatearen estatu- tuerk dioten prozedura jarraitu. Beldur dira funtzionario hauek estatutuak edo lege- diak esaten dutena beteaziko duten. Euren helburuak azkeneraino eramateko ez dute trabarik nahi eta agin-

duak onartuko dituzten txo- txongiloak behar dituzte, horretarako legedia urratu behar badute ere. Egoera honek San Marko mankomu- nitatea Diputazioaren menpe jartzera darama. Hau batzuen utzikieriaz eta ezgaitasunaz probestuko baita San Marko- ren eremuan gehiengo diren (hamarretik sei) udal-errien ideiak, proposamenak eta egitasmoak blokatzeko eta ezerezean uzteko.

Beraiek ezer egiteko gai ez eta besteek egindakoa saldu nahi dute. Auditoria martxan jarri dutela esan dute, aurreko gobernu taldeak egin zue- nean. Baina dena ez du gaizki egin, bide onetik ari da Meri- nok gidatzen duen gobernu- a, herritarrei informazioa mugatzerakoan. Mankomunitatera iritsi bezain laster, autokon-

postatzeari edota atez ateko bilketari buruzko aipamenak kendu egin dituzte web orri- tik. Partzuergoak ere gauza bera egin zuen: Lapatxera konpostatzera, 5. edukion- tziaren bidez, sortzaile han- dien bidez eta Atez ateko bilketaren AAB) bidez heltzen ziren organikoaren datuak zabaldu zituen 2009an. Baina datuen gordinak beraiek era- kutsi nahi ez zuten zerbitu erakusten zuten: Atez Ateko Bilketak selektiboak gainontze- ko ereduak baino hamar aldiz materia organiko gehiago jasotzen zuela, eta horrek errauste ereduak kinka larria jar zezakeela. Hori ikusita, organikoaren datuak txosten- tatik kentzea erabaki zuten.

Hori da PSOE eta EAJren politika egiteko modu batera- tua. Hori batzuen, "batu gai-

tezen" proposamena prakti- kan jartzeko modua.

Ez genuke San Markok hondakinen bilketan inongo eskumenik izan gabe (esku- men horiek udal-erriek baitu- tuzte San Markoren eremu- an), mankomunitateak Gipuzkoako Diputazioarekin bosgarren edukiontzia bultza- tzeko hitzarmena sinatzeko erakutsitako borondatea kriti- katu gabe amaitu nahi. Atez ateko bilketak baino hamar aldiz emaitza kaskarragoak lortzen dituen sistema baten alde egin nahi dute, birzikla- tzaile mozorroa jantzia duten bitartean, errauste ereduaren alde indar gutziti ari dire- nean.

Ezker Abertzalea, Alternatiba eta Ezker Batua

Naike Zumeta Erasmuseko ikaslea Bulgarian

“Esperientzia handia izan da zerotik hastea”

■ Bulgariar hitz batzuk eta idazkera berria, zirilikoa, ikasi behar izan zituen Bulgarian moldatzeko ■ Hiru hilabetetan, Bulgaria eta ondoko herrialdeak ezagutzeko aukera izan du

Naike Zumeta Bulgariara praktikak egitera joan zen hiru hilabetetarako Erasmus diru laguntzarekin. Baina lan egiteaz gain, turismoa egiteko aukera ere izan zuen lasarteoriatar honek. Hau guztia, bere lehenengo egunak Sofian, lan egiteko hizkuntza berria ikasi beharra eta hainbat bitxikeri azalduko ditu Naikek Jalgi kafeantzokian asteazkenean, 21:30ean eskainiko duen diaporaman.

Nerea EIZAGIRRE

Non bizi zinen Bulgarian?

Hiriburuan bizi nintzen, Sofian. Bulgariako hiri garrantuena da eta praktikak egiteko eta enpresa bat bilatzeko hoberena.

Nolakoak izan ziren lehenengo egunak?

Hara joan eta etxea nolakoa izango zenaren beldur ginen.

Guk ez genuen arazo askorik izan. Baina beste lagun batzuk egon ziren etxeetan, ez zegoen koltxoirik eta hiru edo lau esterila bata bestearnean gainean jarrita egiten zuten lo.

Hala ere, iritsi eta hozkailurik gabe, kazuela eta edalontzirik gabe aurkitu ginen.

Hain egoera txarrean al dago Bulgaria?

Kale nagusietan eraikin handiak ikusten ziren eta bi kale atzerago joan eta etxeak ez zeuden egoera onean.

Errepideak orokorrean gaizki zeuden. Azpiegiturretan ez dute dirua gastatzen.

Esate baterako, martxoan joan ginenean, kriston hotza egiten zuen eta elurra egin zuen. Ba ez zen inor pasa elurra kentzera eta urtu harte hor egon zen. Eta gero putzuak zeuden edonon.

Gogoratzen dut, gainera, kafetegi baten barruan ginela, emakume bat pasa eta elurra gainera erori zitzaiola.

Gainera, espaloiak *Humor Amarillo* programako proba batekin konparatzen nituen, uretako hanburgesena. Izan ere, ez zenekien zein zen baldosa ona eta zein txarra.

Beraz pobrezia handia dago?

Gu erdialdetik ibiltzen ginen eta ez zen pobre asko ikusten, baina herrixka txikietatik eta Sofiako inguruetan txabola pila ikusi genituen.

Ez dakit bulgariarrak ziren edo errumaniarrak ziren, baina nik errumaniarrak zirela

uste dut. Izan ere, ez zuten bulgariar itxurarik.

Han emakumeak oso argalak dira eta gizonak kristonak dira, nik *mister proper*-en antza hartzen nien. Hile motza, gihartsuak eta oso handiak.

Horretaz gain, guri gehien harritu ziguna, nahiz eta dirurik ez izan eta etxean zuloa izan, kotxe hoberenarekin eta jantzi hoberenarekin joango zirela esaten zutela zen. Eta hori kanpoko jendeak pobreak direla ez antzemateko egiten dute.

Eta ez al dute Europar Batasuneko laguntzarik?

Laguntzak eskatzen ditu Gobernuak eta eraikuntza berri eta handiak ikusten dira, baina behar nagusietan ez dute hobekuntzarik ikusten.

Horregatik, nahiz eta duela gutxi Europar Batasunean sartu den, ez dute europartasun hori sentitzen.

Gaia aldatuz, praktikak egitera joan zinen, zailtasunik aurkitu al zenuen?


Nire lehen egunak beldurtu ninduen. Enpresara joan nintzen kafearen orduan eta emakume guztiak hitz egiten zidaten eta nik ez nuen ezer ulertzen, noski.

Izan ere, lan egitea oso zaila zen hasieran. Guztia zirilikoz zegoen, paper guztiak...

Beraz, hizkuntza berria ikasi behar izan zenuen?

Bai. Lehenengo bi asteetan, kaosa izan zen. Lehenengo astean ez genuen ziriliko klaserik izan, bigarrenean hasi ginen.

Gogoratzen dut leku batera joateko bidea erakutsi zutela eta guk hori egiten



Alejandro Nevski Sofiako katedrala, Kristau ortodoxoen munduko katedralik handienetakoa da, bertan 5.000 lagun sartzen dira.

genuen kartelak eta ulertzen ez genituelako. Hasieran asko galtzen ginen.

Gero zirilikoz hitz batzuk ikasi genituen eta alfabetoa. Hori ikasi eta ingelesarekin lotuaz zentzua ematen genien hitzei. Baina alfabetoa ikasi arte, nahiko zaila izan zen.

Eta gero zer moduz moldatzen zinen?

Ingelesa zekitenek gure maila zeukaten eta horiekin ongi ulertzen ginen.

Baina gehiengoak ez daki ingelesik, beraz, mimikaren bidez eta bulgaroz ikasi genituen hitz batzuekin moldatzen ginen.

Bidaiatzeko aukera ere izan duzu, ezta?

Bai, horrela da. Enpresakoek ez ziguten arazorik jartzen eta bidai asko egin ditugu.

Hango enpresa batek irteerak prestatzen zizkigun taldea egiteko.

Haiekin musulmanak sartu zirenean suntsitu ez zituzten herriak, Kopritsvitsa eta Plovdiv, ikustera joan ginen. Batez

ere, alde zaharrak. Beste irteera batean, herri txiki batera joan ginen ardoa nola egiten zuten ikustera, baita herrian zeuden eraikin zaharrek ezagutzera ere

Baina zuen kabuz ere egin dituzue bidaiak ...

Bai, noski. Bulgarian zehar kotxe bat alokatu eta gidetan agertzen diren lekuak ezagutzera joan ginen. Bulgaria ezagutu gabe ezin bueltatu.

Honela, herri txikiak ikusi genituen. Kostan ere egon ginen, Itsaso Beltza, Varna, Rilako monastegia...

Gainera, han ginela aprobetxatuz, ondoko herriak ikusi eta ezagutzeko aukera paregabea genuen.

Honela Serbia, Turkia, Grezia eta Mazedonian egon ginen. Errumaniara joan nahi genuen baina ez genuen denborarik izan.

Lagun pila egingo zenituen?

Bai, horrela da. Horrelako egoera batean gauza asko ikasten dituzu, baina bereziki lagun asko egiten dituzu.

Pisukideekin primeran moldatzen nintzen. Lehenengo egunetan, denak batera ibiltzen ginen, gosaltzeko, bazkaltzeko, afaltzeko. Dena batera egiten genuen.

Beste erasmus batzuk eta bulgariar batzuk ezagutu

genituen denborarekin, praktikak egitera joan ziren andaluziar batzuk ere. Unibertsitateko eremuan ere jende pila, galego bat,...

Egia esan, bulgariar askorekin ez dugu harremanik izan. Hori gehien bat lanean izan da.

Eta nolakoak dira bulgariarrak?

Fisikoki lehen azaldu dut. Baina pertsonalki oso beroak dira. Hasieran hotzak dirudite, baina ez dira horrela.

Lehen aipatu dudan lehenengo lan egun horretan, emakumeak niri hizketan ari zirela eta nik tutik ulertzen ez nuen horretan, emakume bat gerturatu zitzaidan. Ez beldurtzeko eskatu, kriston besarkada eman eta zu familiakoa izango zara esan zidan.

Horren ostean, lankideek haien urtebetetzetara eta afarietara gonbidatzen ninduten. Bertan enpresako lankideak, familia... zeuden.

Hasieran hotzak diruditen arren, hiru hilabetetan horrela ez direla konturatzen zara. Gu ere horrelakoak garela diote, ezta?

Nolako esperientzia izan da?

Esperientzia handia izan da. Han zerotik hasi eta hiru hilabete egon. Lana egin eta hizkuntza desberdin batean... •